

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea San Jose de los Llanos industrialdeko 2. sektorea urbanizatzeko proiektuaren eranskinari

Hasierako onarpena eman zaiolarik, alkatearen abenduaren 16ko 594/2016 Ebazpenaren bidez, Araba Garapen Agentziaren eskariz egindako Langraizko (Iruña Oka) San Jose de los Llanos industrialdeko 2. sektorea urbanizatzeko proiektuaren eranskinari (I eta II faseak), zeina sistema orokorrerako den lurzatia berdintzeko lanak egitean datzan, jendaurrean jartzen da, iragarkia argitaratuz ALHAOn eta zabalkunde handieneko egunkarietako batean, azken argitalpena egin eta hogeit hamar egun baliodunez, eragindakoek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Espedientea Iruña Okako Udalaren bulegoetan egongo da ikusgai.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2016ko abenduaren 20a

Alkate lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA